



# ZURE BIDE LAGUN



# > Gure programa

> Galdutako erosahalmena berreskuratu: LABen ekimenez 2010etik kendutako %5 ETBn berreskuratzea lortu badugu ere, harrez geroztik Jaurlaritzak aldebakarez emandako igoerak KPIren igoeretik behera gelditu dira. Zor horren aitortza eta berreskurapen plana borrokatuko dugu.

> Prekaritatea borrokatu: Azken urteotan egindako lanarekin jarraitu, eta kontratazio irregularrak eta bidegabekeriak salatzen eta borrokak irabazten jarraituko du LABek.

> Lan Poltsak ireki: Prekaritatea borrokatzeko eta egonkortasuna eta aukera berdintasuna bermatzeko ezinbestekoa den arautegia sail guztietara zabaldu behar da.

> Langile egitura zehaztu: Urte gehiegi igaro dira azken negoziatzioa eman zenetik, eta bada garaia ETBk hurrengo urteetan lan egiteko behar duen egitura adosteko. Miramonen diharduten azpikontratetako teknikako langile guztiak ETBko kontratuarekin egon behar dira. Egun dauden lanpostu mugagabe ez finko eta kontratazio irregularrak baino lanpostu askoz gehiago behar dira egituran, eta deialdi publikoaren bidez hornitu beharko dira.

> Bateratzerik egotekotan inor ez dago soberan: EITB enpresa bakar bihurtzeko erakundeen aspaldiko asmoa gauzatzekotan, LABek argi du ez dagoela langilerik soberan, eta ezin dela nolana gauzatu. Egiturari eusteko eta zabaltzeko arrazoiak badaude, eta ohi bezala gogor borrokatuko ditugu.

> Gestore sistema desegin: Epaitegietan LABek lortutako sententzia batek hori derrigortzen badu ere, gauzatu egin beharra dago. LABentzat langile egitura zehaztu aurretik ezinbestekoa da sistema hau desagertzea, eta egoera horretan dauden langileak Lan Hitzarmenaren babesean eta araudipean egon.

> Lan osasuna eta segurtasuna zaindu: Arazo larri

hauen jarraipena eta borroka lan osasun batzordean eta ekintza sindikalaren bidez behar bezala borrokatzeko LAB bermea dela frogatzen jarraituko dugu. Ildo honetan ere, gaixotasun mota guztien jarraipena osasun zerbitzu publikoek bakarrik egitea aldarrikatzen jarraituko dugu.

> Errelebo kontratoak sustatu: Jaurlaritza Madrilen aginduak betetzera mugatzen delarik, LABek errelebo kontratua eben-



ERALDA  
TZAILEA

SOLIDA  
RIOA

E K I N  
TZAILEA

ERAGIN  
KORRA

tualei irekita mantentzeko, baldintzak hobetzeko eta bakante guztiak ordezkatuak izateko lan egiten jarraituko du.

- > Albistegien egitura eguneratu: Euskarazko albistegiak (eta euskara bera orokorrean) bigarren mailan dago ETBn. Euskarazko eta erdarazko albistegiek agenda propioak eduki eta lan zentro ezberdinetan egon ezker arazoa konpontzen lagunduko luke. Era berean Miramongo zentroarentzat bultzada handia suposatuko luke LABen iritziz.

- > Informazio politika errotik aldatu: Gobernuan egoten diren alderdien kontrola gainditu eta komunikabide publikoa euskal gizartearen benetako beharretara jarri.

- > Borroka feministarekin bat: EITBn dauden aukera berdintasun programak oso eskasak eta baliabide gutxikoak dira lantoki bakoitzak dituen beharretarako. ETBko ardura postuetan ez da aukera berdintasunik antzematen, batez ere arlo teknikoan. Datorren martxoaren 8an deitua dagoen greba feminista bultzatzeko konpromiso argia eta irmoa du LABek.

## > Azken lau urteotako balantzea



Urtarrilean lau urte igaroko dira jada ETBn eta Euskadi Irratian hauteskunde sindikalak egin zirenetik, eta ohi bezala LABen atal sindikalek epealdi honetan egindako lanaren laburbilduma eskaini nahi dizuete langileoi.

Lanordu, mobilizazio, ekimen eta orrialde mordo orriotan trinkotzerik ez badago ere, gai nabarmenenei helduko diegu oso modu laburrean.

Gaietan sakondu nahi izan ezker atal sindikalaren webgunean erreferentziak eta txostenak topa daitezke.

## > Kontratazio eredu negargarriari galga jarri eta buelta ematen

2015ean eta aurten bertan bi txosten argitaratu dugu, zuzendaritzaren kontratazio politika eta ondorioak salatzen genituenak, eta kontratazioaren iruzurra eta prekaritatea borrokatzeko egindako lanaren bilduma jasotzen zituztenak. LABek epaitegietan eta ikuskaritzetan egindako lan eskerga horren emaitza nabarmenena oraingoz 41 langileren egonkortasuna lortu izana da, euren kontratu lotsagarriak, iruzurtiak eta prekariorioak «mugagabe ez finko» bihurtzea lortu delako. Horiez aparte Lan edo Gizarte Segurantza Ikuskaritza ezberdinek ofizioz egindako txostenen eragina oraingoz ez dugu ezagutzen, eta noski, lan horren domina ez dugu geuk jarriko.

## > Prekaritatea borrokatzeko ekintza sindikala ezinbestekoa

Borroka hau administrazio kontseilura eta parlamentura bertara eraman badugu ere, ez gara instituzioetara mugatu, ekintza sindikalaren bidez ere elikatu baitugu. Javier Salcedo Giza Baliabideetako zuzendaria kaleratzea lortu dugula baieztatu dezakegu zeharo, eta ohartzen genuen bezala, urratsa ezinbestekoa izanik ere, EAJren kontratazio politika ez da horrekin

amaitu. Zuzendaritzak, Jesus Elgezabal kudeatzaileak gidatuta, ezkutukerian eta iruzurrean jarraitzeko asmo argia azaldu du, aurretik lana badugu beraz.

## > Oraindik bidegabekeria ugari gelditzen da zuzentzeko

Funtzioen lausotzeak eta hustutzeak kontratazioan eragin handia du, batez ere Miramonen, eta oraindik ere kontratazioetan irregularitasunak ematen ari dira. Arduraz jokatuta, LABek lan poltssetako goiko postuetako langileekin abiatutako lanarekin jarraituko du, eta bere burua zapalduta ikusten duen langile orori bere babesa eskaintzen jarraituko du. Epaitegietan frogatuta gelditu da ere ETBko langile egitura ez-nahikoa dela, eta hain zuzen haxe izango da LABen erronka hurbilena.

## > Lan Poltsak gaizki kudeatzen jarraitzen da EITBn

Oraindik ere ETBko hainbat sailetan "Taifa erresumak" badaude, eta bertako gestoreek lan poltsak soberan dituzte, zuzenean eta lotsagabeki halaxe onartzen dutelako. Oso larria da ere Eusko Irratiko lan poltsen kudeaketa, oraindik ere ilunkeria eta kuttunkeria ematen delako.



ERALDA  
TZAILEA

SOLIDA  
RIOA

E K I N  
TZAILEA

ERAGIN  
KORRA

Salatu genuen bezala, lan poltsa erdaldun-  
elebakarrak mantentzen saiatzen ari da ELA,  
eta LABek behintzat EITBn presentzia duen  
lantokietan kontratazio elebiduna bermatzeko  
borroka egiten jarraituko du, eskura ditugun  
tresna guztiakin.

### > LABentzat gestore sistema atzera botatzea marra gorria da

Sortze beretik gestore sistemari  
aurre egin dio LABek, era-  
kundeetan, epaitegietan,  
hauteskundeetan eta  
ekintza sindikalean. Ilun-  
tasunean eta iruzu-  
rrean oinarrituta-

ko kontratazio  
e r e d u  
honek lan  
harremanak  
erabat bal-  
d i n t z a t u  
egiten ditu. Ezin  
da onartu enpresa  
publiko batean kuttunkeriaz  
eta atzamarrez egindako  
kontrataziorik, are gutxiago  
ehundik gorako langileren  
baldintzak arautu gabe geldi-  
tzen direnean. Hau esanda, gestore  
kontratu ugari prekaritatean lan egiteko ere  
erabili direla salatzen jarraitzen dugu.

ETBko erredakzioko arloburuen gaia epaite-


gian irabazi genuenean, sistema de facto bertan  
behera bota genuen. Ardurako lanak egiturako  
langileek bete behar dituzte argi eta garbi, eta  
ez kanpoko langileak gestore kontratuak eginez.

### > Langile egitura berria aztertu beharra dago

LABentzat ezinbestekoa bada hurrengo  
urteetarako Bilboko, Miramongo eta Eusko Irra-  
tiko langile egitura negoziatzea eta zehaztea,  
baina ezin zaio gaiari heldu halako distor-  
tsioak sortzen dituen gestore sistema  
bat existitzen den bitartean. Ezin dugu  
ahaztu Eusko Irratian zuzendaritzak  
2016an dagoeneko negoziatzeko  
konpromisoa hartu zuela, eta LAB izan  
dela horretan borrokatzen aritu eta aritzen  
den sindikatu bakarra.

### > Miramon erreferentzia zentroa izan behar da

Zuzendaritza guztien ahotan  
Miramon erreferentzia zen-  
troa badela entzun izan  
dugu urte luzeetan, baina  
errealitatea ezkututzen duen  
izenburu hutsean gelditzen  
da beti. LABek ez du berdin  
ikusten, bai ordea ikusentzunez-  
koen azpikontratazio eta prekaritatearen  
erreferentzia zentro bihutu dela aspaldi, gutxi  
batzuen poltsikoen onuran. Bertako langile  
egitura hustu nahi du zuzendaritzak, funtzioak



nahastuz eta bertako kontratuak azpikontratatu-tako kontratu prekarioekin ordezkatu asmoz.

### > **Segurtasun arazoaren kontrako borrokaren emaitzen zain**

Azaroan publiko egin dugun txostenean jasotzen dugun bezala, arazo larriak eta onartezinak zuzentzeko lana ez da txikia izan, eta LABek ondo heldu dio. ETBko kontratudunok, azpikontratatuak, bai eta ikuslegoa bera ere egoten da arriskuan kasu askotan, Miramongo arduradunen eta zuzendaritzaren utzikeriaren erruz. Zuzendaritzak azkenean mugimendu bat egin badu ere, Ikuskaritzaren txostenaren zain gaude lerro hauek idazteko garaian, eta adi eta lanean jarraituko dugu.

### > **EITBren eredia zentzu guztietan partidista eta autokonplazientea izaten jarraitzen du**

EAJk EITB bere tresna propiotzat hartzen jarraitzen du, kontratazio politikatik abiatu eta komunikazio eta herri helburu bezala: neoliberala, menpekoa eta anbiziorik gabekoa da #PNVstyle. Prekaritatea eta gestore sistema albistegietan kontrol ideologikoari eusteko erabiltzen jarraitzen du, baina epaitegietan

galga bat jarri diogu gestore sistema bertan behera utziz eta kontratazioa egonkortuz eta duinduz. 2016an albistegien diagnostikoa eta proposamenak jaso genituen txosten batean, eta zentsura eta kontrol ideologiko guztiei aurre egin eta egiten jarraituko dugu.

### > **Ildo sindikala argi batekin ekimen ugari bultzatu du EITBko LABek**



Orain arte aipatutako ildoak eta gehiago jorratzeko lan eskerga egin dugu LABen atal sindikalok EITBn. Esandako ikuskaritzetan eta epaitegietan salaketak bideratzeko lana ez dugu inondik ere inprobisatzen,

baizik eta lan mordo dago atzetik: ildo sindikalen araberako estrategia finkatu, kalte-tutako langileekin egon, dokumentazioa bildu, aholkularitza juridikoarekin aztertu, eta bide egokiena aukeratu. Horrela, LABen ekimenez edo zeharka egonkortatutako hamarka lanpostuez gain, oso lorpen eta borroka garrantzitsuak izan ditugu: %5aren soldata murrizketa; oportunitate osagarriak; disponibilitateak; lan poltsak; sindikatuon informazio eskubidea...

ERALDA  
TZAILEA

SOLIDA  
RIOA

E K I N  
TZAILEA

ERAGIN  
KORRA

## > Borroka sindikal kolektiboak du lehentasuna

Eta ez gara horretan gelditzen, baizik eta lan horien emaitzak partekatu egiten ditugu efektu biderkatzailearen bila, propaganda hutsatik haratago. Administrazio kontseilura, parlamentura, jendartera, gainontzeko langileekin aztertzeko ekimenak ere oso ugariak izan dira. Prekari-tatearen irtenbide pertsonalak gainditzeaz gain, konponbide kolektiboa eta integrala da EITBk behar duena. Are gehiago zerbitzu publikoetan negoziazio kolektiboa gero eta ukatuagoa dagoenean. Era berean, ekimen instituzionalak (administrazio kontseilua, parlamentua, ikuskaritzak, epaitegiak...) lortutako eskubideak bermatzeko garrantzitsuak izanik, EITBko prekaritatearekin amaitzeko eta galdutako eskubideak berreskuratzeko eta hobetzeko ezinbestekoak dira langile guztion mobilizazioak.

## > LAB indartsua ezinbestekoa da EITBn



Beti errepikatzen dugu inoiz ez diegula langileei karnetik eskatzen arazoak konpontzeko, eta sindikatua tresna dela, ez helburu bat. Ez gara tranpetan aritzen, eta gatazka kolektiboak lehenesten ditugu "afiliazio kanpainak" diren irtenbide indibidualen aurrean. LABen estrategia sindikala garbi edukita bere eskubideak urratuta dituela pentsatzen duen edozein

langilarekin gaia aztertzeko eta borrokatzeko pres-tutasuna agertu dugu beti. Ez gara horretara mugatu, noski, eta bestelako ekimen es-trategikoetan ere eragile aktibo izan da LAB Euskal Herrian

eta bere atal sindikalak EITBn: Negoziazio Kolektiboaren estatalizazioaren aurka; zerbitzu publikoen defentsa; Martxoak 8; erredakzio kontseiluaren sorrera; Kataluniarekin, Altsasukoekin, presoekin... elkartasuna; zentsuraren eta kontrol partidistaren salaketak; eta euskararen benetako defentsa aipatu beharra dugu Eusko Irratiaren egoera gogoratzerakoan.



# LAB BIDELAGUN

## Aldaketarekin bat egin!

### GURE HAUTAGAIAK



Andoni Basabe  
*Erredaktorea*



Aritz Legarreta-Echevarria  
*Erred. Laguntzailea*



Larraitz Eguren  
*Prod. Injeniarria*



Irati Garcia  
*Operadorea*



Rafa Noya  
*Erred. Laguntzailea*



Ibon Idigoras  
*Erredaktorea*



Antton Aldekoa  
*Errealizadorea*



Ibai Goti  
*Sareetako Lag.*



Idoia De Dios  
*Dokumentazio Lag.*



Asier Zubizarreta  
*Operadorea*



Estitxu Baglietto  
*Kameraria*



Ekain Pagola  
*Erredaktorea*



José Ramón Andueza  
*Mantenu Elektronikoa*



Ander Txintxurreta  
*Erredaktorea*



Luis Mari Alonso  
*Operadorea*



Segis González  
*Soinu Teknikaria*



Jon Otegi  
*Operadorea*



Jesús Serrano  
*Errealizadorea*



Ainhoa Lendinez  
*Erredaktorea*

